

IRABAZI-ITURRIAK ETA KOSTUA

Irabazi-iturriak, erakunde zein enpresa batek epe jakin batean lortzen duen kontsumo edo aurrezki-aukera da eta dirutan adierazten da. Gizabanakoentzat, diru-sarrerak aldi jakin batean jasotako edozein soldata, onura, interesen ordainketa, edo bestelako diru-sarrera dira (mozkinak edo etekinak ere esaten zaie). Hortik abiatuta, diru-sarrera garbien kontzeptua azaltzen da, diru-sarrera gordinei zergak eta bestelako kenkariak kenduz lortzen dena.

Prezioa erabilera arruntean, salneurria edo prezioa ondasun edota zerbitzu baten truke alderdi batek beste bati ematen dion ordaina da. Ekonomia moderno guztietan, salneurria zein den adierazteko eta salneurria ordaintzeko ia beti diru unitateak erabiltzen dira. Prezio mota desberdinak daude, alde batetik finkoak, aldagai estatikoen arabera aurredefinituta daudenak, eta dinamikoak, merkatuaren egoeraren arabera aldatzen direnak.



Kostua zerbitzu edo ondasun bat ekoiztean kontsumitzen diren faktoreen balio monetarioa da. Ondasun baten ekoizpen prozesuak hainbat faktore produktiboen kontsumoa ekartzen du, kontsumo honi kostua esaten zaio. Alde batetik kostu finkoak daude, kostu hauek ez dira enpresaren ekoizpenaren arabera aldatzen, hau da, ekoizpena igotzen bada ez dira kostuak igotzen eta ekoizpena jaisten bada ere kostuak mantendu egiten dira, adibidez, alokairua. Bestetik, kostu aldakorak, kostu hauek ekoizpenaren arabera aldakorak dira, hau da, ekoizpenaren arabera kostuak igo edo jaitsi egiten dira, esaterako, lehengaiak eta energia.

Balio proposameneko atalean azaldu bezala gure elkartearen helburua baliabide urriak dituzten pertsonak laguntzea da beraz irabaziak edo etekinak lortzea ez da gure xedea. Beste era batera esanda, ez ditugu mozkinak edota etekinak, hau da, diru-sarrerak ken kostuak, izango. Hala ere, diru-sarrerak izatea espero dugu, publizitatearen bidez jasoko ditugunak. Hauek gure funtsezko baliabideak finantzatzeko erabiliko ditugu, kartelak edo esku-orriak egiteko, gure informazioa jasoko duen web gune bat sortzeko... Horrez gain, gastu hauek diru-sarrerak baino gehiago badira, hau da, diru gehiago behar izanez gero, udaletxeari diru-laguntzaren bat edo beste eskatzea pentsatu dugu.